

AUTOBUSEN, KAMIOIEN, KARABANEN ETA AUTOKARABANEN UDAL APARKALEKUKO PLAZEN APROBETXAMENDU BEREZIAGATIKO TASA

1.- ZERGAPEKOAK

Ordenantza honetan araupetutako tasa ordaindu behar dute kamioien, autobusen karabanen eta autokarabanen aparkalekuko plazak erabiltzegtiko aprobetxamendu berezarako lizentziak eta baimenak ematen zaizkien pertsonak edo erakundeek, edota horretarako baimenik gabe aprobetxamendutik etekina egiten dutenek.

2.- APARKALEKUAK

Ordenantza honetan ezarritako tarifak bakar-bakarrik aplikatuko zaizkie kamioien, autobusen, karabanen eta autokarabanen aparkalekuaren erabilera arautzen duen Ordenantzan zehaztuta dauden aparkalekuko plazei.

3.- ZENBATEKOA

1.- Ordaindu behar den tasa arautua izango da, ondorengo idatz-zatian dagoen Tarifa, aprobetxamenduak irauten duen denboraren arabera, eta urtekoari dagokiona izango da.

2.- Tarifa urtekoa izan, Eranskinean ezarritakoa, eta aprobetxamendu unitate guztientzat berdina izango da, azalera edozein dela ere.

4.- KUDEAKETA ARAUAK

1.- Tarifaren arabera eska daitezkeen zenbatekoak baimendutako edo gauzatutako aprobetxamendu bakoitzeko likidatuko dira.

Egiaztatutako arrazoiekin justifikatutako bajen edo alta berrien kasuan, tasaren kuotaren zenbatekoa hileko naturaleko luzatuko da, horiek formalizatzen direneko datari dagokiona barne.

2.- Baimenak eman ondoren, Udalak baimenari dagokion tasa likidatuko du, eta hala badagokio, gordailua edo fidantza eskatuko du. Hori esleitutako partzelaren tarifan ezarrita dagoen zenbatekoaren % 50en baliokidea izango da. Gaindikina ordaintzeko epea, hala badagokio, hilabetekoa izango da, errekerimendua egiten denetik zenbatzen hasita.

3.- Baja aurkeztu eta hurrengo hilabeteko lehenengo egunean izango ditu ondorioak bajak. Edozein dela ere aurka emandako arrazoia, baja aurkezten ez bada, tasa ordaintzen jarraitu beharko da nahitaez.

4.- Urtetik urtera Udalak dagokion errolda prestatuko du, eta bertan jasoko dira

aparkalekua erabiltzeko baimena duten subjektu pasiboak, urte bakoitzeko urtarrilaren 1ean dagozkien kuotak eta behar diren zehazpenak, erakunde eskudunak onartuta.

5.- ORDAINTZEKO BETEBEHARRA

1.- Ordenantza honetan araupetutako tasa ordaintzeko beharra honela sortzen da:

a) Baimen berriak ematen direnean udal titulartasunpeko aparkaleku plazak tokiak erabiltzeko.

b) Lehenik baimendutako emakida edo aprobetxamenduak direnean, urte bakoitzeko urtarrilaren 1ean.

2.- Tasa baldintza hauetan ordainduko da:

a) Aprobetxamendu berrien emakidak badira, Udalaren diruzaintzan edo Derioko Udalak ezartzen duen tokian, beti ere aparkalekuko plazaren aprobetxamendu lizentzia edo baimena jaso aurretik.

b) Baimena badaukaten eta luzatu diren aprobetxamenduak direnean, tasa honen erroldetan edo matrikuletan sartu eta gero indarrean dagoen araudiaren arabera, tasa urtero ordainduko da.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau Udalbatza Osoak 2019ko urriaren 29an eginiko bilkuran aldatu da, indarrean sartuko da 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera eta indarrean jarraituko du berau aldatzea edo indargabetzea erabakitzen ez den bitartean. Ordenantza fiskal honetan aldaketa partzialik egitekotan, aldatu gabeko artikuluek indarrean jarraituko dute.

Tasaren arauketan aurrekontuei buruzko Foru Arauek edo zuzenean aplikatzekoak diren beste edozein arau edo xedapenek sartzen dituzten aldaketek, bidezkoa bada, kasuan kasuko isileko aldaketa eragingo dute Ordenantza Fiskal honetan.

I. ERANSKINA

BAKARRA448,82 €/urte